ikusmer

Merkataritzaren Behatokia
Observatorio del Comercio



2016ko IRAILAK 15

# MERKATARITZA DATUETAN

## 2016ko 2. HIRUHILEKOA

ikusmer
Merkataritzaren Behatokia
Observatorio del Comercio

# AURKIBIDEA


Salmenten bilakaera
3.ORRIALDEA

Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera
5. ORRIALDEA

Euskadiko kontsumitzailearen konfiantzaren adierazlearen bilakaera
10. ORRIALDEA

Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera
11. ORRIADEA

# SALMENTEN BILAKAERA




TXIKIZKAKO SEKTOREA
SALMENTA NOMINALAK

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak % 3,0 igo zituen salmentak, prezio konstanteetan, 2016ko bigarren hiruhilekoan, betiere aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, EUSTATek emandako datuen arabera. Sektoreko salmenta, hornitegiak kontuan izan gabe, % 3,5 igo zen urte arteko tasari erreparatuta

Aurreko hiruhilekoaren aldean, berriz, % 0,7ko igoera erreala izan da, behin urte-sasoiko eragiak ezabatu ondoren

## *TITULUAK*

*“EAEko txikizkako sektoreko salmenta nominalek urte arteko %3,0ko hazkundea jasan zuten 2016ko bigarren hiruhilekoan”*

*“Lurralde historikoen artean Bizkaia da zenbateko onenak aurkezten dituen lurraldea urte arteko hazkunde nominala %3,9koa izanik”*

## EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA

### URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA
### 2. HIRUHILEKOA 2016

| | UNEKO PREZIOAK | | PREZIO FINKOAK | |
|---|---|---|---|---|
| INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera | t/t-4 | t/t-1 | t/t-4 | t/t-1 |
| **Euskal A.E.** | **2,7** | **1,3** | **3,0** | **0,7** |
| Araba | -1,7 | -0,3 | 0,9 | 0,0 |
| Bizkaia | 3,9 | 0,9 | 2,9 | 0,0 |
| Gipuzkoa | 3,1 | 2,8 | 4,1 | 2,1 |
| INDIZE OROKORRA sektorearen | | | | |
| **ELIKAGAIAK** | **5,4** | **1,1** | **4,2** | **0,7** |
| Elikagaietan espezializatuta | 2,9 | 0,8 | 0,7 | 0,1 |
| Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki | 6,8 | 0,1 | 6,2 | 0,0 |
| **BESTE PRODUKTUAK** | **4,3** | **1,5** | **2,9** | **0,9** |
| Pertsonen hornikuntza espezializatuta | 4,1 | 1,7 | -1,1 | -0,9 |
| Etxearen hornikuntza espezializatuta | 7,2 | 1,1 | 7,7 | 1,3 |
| Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta | 4,6 | 2,8 | 5,2 | 2,0 |
| Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki | 0,2 | 2,4 | 0,8 | 1,7 |
| **AUTOMOZIORAKO ERREGAIA** | **-12,9** | **-1,1** | **0,1** | **0,6** |
| **SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe** | **4,8** | **1,3** | **3,5** | **0,8** |

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak. t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak. 1.Taula. Iturria: Eustat.

# SALMENTEN BILAKAERA

Sektoreen arabera, elikagaien salmenta % 4,2 gehitu zen 2016ko bigarren seihilekoan, gainerako produktuen txikizkako merkataritza % 2,9 igo zen eta automoziorako erregaien salmenta % 0,1 igo zen, betiere 2015eko aldi berarekin alderatuta eta prezioen eragina kendu ostean.

ETXEKO EKIPAMENDUA
UNEKO PREZIOAK

%7,2





%4,2
ELIKAGAIGINTZA TERMINO KONSTANTEETAN

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan ere aldaketa positiboak gertatu dira sektore guztietan, pertsonaren ekipamenduan espezializatutakoan izan ezik, azken horretan % 1,1 jaitsi baita

Etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritza % 7,7 hazi da, beste kontsumo-ondasunetan espezializatutakoa % 5,2 eta gainerako produktuetan nagusi den merkataritza espezializatu gabea % 0,8, guztiak prezio konstanteetan.

Hiru lurralde historikoetan urte arteko salmentak gora egin du termino errealetan: Gipuzkoa % 4,1 hazi da, Bizkaia % 2,9 eta Araba % 0,9. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban eta Bizkaian ez da aldaketarik izan eta Gipuzkoan indizeak % 2,1 egin du gora.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, merkataritza espezializatua % 0,7 gehitu zen, eta elikagaiak nagusi diren merkataritza espezializatu gabea % 6,2 igo zen.

SALMENTAK TERMINO ERREALEAN



# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

## TITULUAK

*"Hiru lurralde historikoetan urtetik urterako txikizkako afiliazioen hazkundea"*

*"Hiletik hilerako alderaketa: apirilean eta ekainean hazkundea, maiatzean jaitsiera arinak"*

2.taulan 2016ko 2. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da.

Handizkako sektorean, Arabak eta Gipuzkoak eragindako bultzadaren ondorioz hiru hileroko saldoa positiboa da EAE osoan.

### LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA. 2016ko 2. HIRUHILEKOA






| HANDIZKARIAK | ARABA | ALDAK. | GIPUZKOA | ALDAK. | BIZKAIA | ALDAK. | EAE | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16/04 | 5.605 | %0,36 | 12.992 | %0,14 | 21.120 | %1,08 | 39.717 | %0,67 |
| 16/05 | 5.656 | %0,91 | 12.943 | -%0,38 | 21.135 | %0,07 | 39.734 | %0,04 |
| 16/06 | 5.684 | %0,50 | 13.105 | %1,25 | 21.037 | -%0,46 | 39.826 | %0,23 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | | | | | |
| 16/04 | 10.648 | %1,16 | 25.197 | %1,03 | 47.186 | %0,58 | 83.031 | %0,79 |
| 16/05 | 10.593 | -%0,52 | 25.148 | -%0,19 | 46.929 | -%0,54 | 82.670 | -%0,43 |
| 16/06 | 10.745 | %1,43 | 25.691 | %2,16 | 47.207 | %0,59 | 83.643 | %1,18 |
| **IBILG.ETA ORD.PIEZAK** | | | | | | | | |
| 16/04 | 2.092 | %0,77 | 4.343 | %0,14 | 6.385 | %0,31 | 12.820 | %0,33 |
| 16/05 | 2.082 | -%0,48 | 4.352 | %0,21 | 6.393 | %0,13 | 12.827 | %0,05 |
| 16/06 | 2.083 | %0,05 | 4.409 | %1,31 | 6.458 | %1,02 | 12.950 | %0,96 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | | |
| 16/04 | 18.345 | %0,87 | 42.532 | %0,67 | 74.691 | %0,69 | 135.568 | %0,71 |
| 16/05 | 18.331 | -%0,08 | 42.443 | -%0,21 | 74.457 | -%0,31 | 135.231 | -%0,25 |
| 16/06 | 18.512 | %0,99 | 43.205 | %1,80 | 74.702 | %0,33 | 136.419 | %0,88 |

2.taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Txikizkako sektoreak hilabeteko bilakaeran jarrera irregularra aurkezten du. Hilabetez-hilabete hazkunde eta jaitsierak ematen dira afiliazioetan. Portaera alderrai hau ematen bada ere bukaerako saldoa positiboa da hiru probintzia eta autonomia erkidegorako.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektoreak, Arabak maiatzean ezik, bilakaera positiboa erakusten du lurralde eta erkidego mailan.

Termino orokorretan merkataritza sektore osoak, hiru lurralde historikoetan, txikizkako sektorearen portaera berdina erakusten du. Apirilean eta ekainean afiliazioen hazkundea ematen da eta maiatzean jaitsiera arinak. Hau horrela bada ere bukaerako saldoa positiboa da hiru probintzia zein autonomia erkidegorako.




3. Taulan 2016 urteko lehen eta bigarren hiruhile arteko afiliazioen bilakera aurkezten da, bilakaera hau kasu guztietan positiboa izanik.

LURRALDE HISTORIKOAK. HIRUHILETIK HIRUHILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA. 2016ko 2. HIRUHILEKOA



| | ARABA | ALDAK. | GIPUZKOA | ALDAK. | BIZKAIA | ALDAK. | EAE | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HANDIZKARIAK** | | | | | | | | |
| 16/1HH | 5.570 | | 12.922 | | 20.917 | | 39.409 | |
| 16/2HH | 5.648 | %1,41 | 13.013 | %0,70 | 21.097 | %0,86 | 39.759 | %0,89 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | | | | | |
| 16/1HH | 10.518 | | 24.962 | | 47.017 | | 82.497 | |
| 16/2HH | 10.662 | %1,37 | 25.345 | %1,53 | 47.107 | %0,19 | 83.115 | %0,75 |
| **IBILG. ETA ORD.PIEZAK** | | | | | | | | |
| 16/1HH | 2.078 | | 4.328 | | 6.376 | | 12.782 | |
| 16/2HH | 2.086 | %0,37 | 4.368 | %0,92 | 6.412 | %0,57 | 12.866 | %0,66 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | | |
| 16/1HH | 18.166 | | 42.213 | | 74.309 | | 134.688 | |
| 16/2HH | 18.396 | %1,27 | 42.727 | %1,22 | 74.617 | %0,41 | 135.739 | %0,78 |

3.Taula Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

1. grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera ikus daiteke, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik, EAE osorako.




1go grafikoa. Iturria: GSIN Lantzea: Ikusmer.

**URTETIK URTERAKO ERKAKETA**
**2016ko 2. HIRUHILEKOA**

| HANDIZKARIAK | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | EAE |
|---|---|---|---|---|
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 5.743 | 12.786 | 20.515 | 39.044 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 5.585 | 12.974 | 20.895 | 39.454 |
| Variación | -%0,58 | %0,61 | %1,16 | %0,73 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | |
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 10.311 | 24.437 | 46.228 | 80.976 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 10.526 | 24.939 | 46.916 | 82.381 |
| Variación | %1,63 | %2,30 | %0,23 | %1,04 |
| **IBILG. ETA ORD. PIEZAK** | | | | |
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 2.039 | 4.234 | 6.253 | 12.526 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 2.076 | 4.337 | 6.365 | 12.778 |
| Variación | -%0,43 | %2,77 | %1,80 | %1,76 |
| **GUZTIRA** | | | | |
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 18.093 | 41.457 | 72.996 | 132.546 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30ean) | 18.187 | 42.250 | 74.176 | 134.613 |
| Aldakuntza | %0,71 | %1,83 | %0,63 | %1,02 |

4. taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

Urtetik urtera eta azpisektoreka azterketa berdina eginez (4. Taula) handizkako sektorean Araba litzateke afiliazioen jaitsiera erakusten duen lurralde bakarra. EAE-ko datuari dagokionez, positiboa da Gipuzkoako eta bereziki Bizkaiko bultzadaren ondorioz. Txikizkarien afiliazioei dagokienez, hazkundea hiru lurraldeetan ematen da. Ibilgailuen sektorean Araba da afiliazioetan jaitsierak erakusten dituen lurralde bakarra.

EAE mailan alderatutako afiliazioak azpisektore guztietan hazten direla ikus daiteke, azken 3 urteetan portaera berdina eman da, beraz, 2014 urtean hasitako joera mantentzen da. Txikizkari eta ibilgailu eta ordezko piezen sektoreak dira emaitz onenak aurkezten dituzten sektoreak %1,76ko hazkundearekin.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

## UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA 2016ko 2. HIRUHILEKOA

| | | GASTEIZ | ALDAK. | DONOSTIA | ALDAK. | BILBAO | ALDAK. | BARAKALDO | ALDAK. | GETXO | ALDAK. | IRUN | ALDAK. | LAUDIO | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HANDIZKARIAK | 16/04 | 4.138 | %0,36 | 3.629 | %0,28 | 5.038 | -%1,70 | 704 | %2,03 | 998 | %0,81 | 1.488 | %0,81 | 102 | -%0,97 |
| | 16/05 | 4.171 | %0,80 | 3.526 | -%2,84 | 5.018 | -%0,40 | 717 | %1,85 | 994 | -%0,40 | 1.492 | %0,27 | 104 | %1,96 |
| | 16/06 | 4.178 | %0,17 | 3.605 | %2,24 | 5.013 | -%0,10 | 704 | -%1,81 | 983 | -%1,11 | 1.531 | %2,61 | 106 | %1,92 |
| TXIKIZKARIAK | 16/04 | 8.606 | %1,24 | 8.871 | %1,83 | 13.968 | %0,43 | 4.792 | %1,33 | 2.015 | %0,95 | 2.440 | %1,29 | 645 | %2,22 |
| | 16/05 | 8.562 | -%0,51 | 8.837 | -%0,38 | 13.913 | -%0,39 | 4.789 | -%0,06 | 2.012 | -%0,15 | 2.467 | %1,11 | 634 | -%1,71 |
| | 16/06 | 8.665 | %1,20 | 9.128 | %3,29 | 14.080 | %1,20 | 4.837 | %1,00 | 2.027 | %0,75 | 2.590 | %4,99 | 664 | %4,73 |
| IBILG. ETA ORD. PIEZAK | 16/04 | 1.603 | %0,82 | 889 | %0,23 | 1.378 | %0,44 | 433 | %0,93 | 141 | %0,00 | 591 | -%0,34 | 84 | %0,00 |
| | 16/05 | 1.593 | -%0,62 | 887 | -%0,22 | 1.386 | %0,58 | 436 | %0,69 | 141 | %0,00 | 588 | -%0,51 | 85 | %1,19 |
| | 16/06 | 1.590 | -%0,19 | 904 | %1,92 | 1.376 | -%0,72 | 451 | %3,44 | 142 | %0,71 | 601 | %2,21 | 91 | %7,06 |
| GUZTIRA | 16/04 | 14.347 | %0,94 | 13.389 | %1,29 | 20.384 | -%0,10 | 5.929 | %1,39 | 3.154 | %0,86 | 4.519 | %0,92 | 831 | %1,59 |
| | 16/05 | 14.326 | -%0,15 | 13.250 | -%1,04 | 20.317 | -%0,33 | 5.942 | %0,22 | 3.147 | -%0,22 | 4.547 | %0,62 | 823 | -%0,96 |
| | 16/06 | 14.433 | %0,75 | 13.637 | %2,92 | 20.469 | %0,75 | 5.992 | %0,84 | 3.152 | %0,16 | 4.722 | %3,85 | 861 | %4,62 |

5.taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

5.taulan, sektoreka, 2016ko bigarren hiruhilekorako eta EAEko zazpi merkataritza udalerri naguisientzako afiliazioen hiletik hilerako bilakaera azaltzen da. 6. taulan sektoreen araberako hiruhile arteko bilakera erakusten da epe eta udalerri berdinetarako.

Handizkako sektorean Bilbao da emaitz kaskarrenak aurkezten dituen udalerria hiruhilekoan jaitsiera jarraituak eman direlarik. Kontra, Gasteiz eta Irun dira hilabetez-hilabete afiliazioetan hazkundea izan duten udalerri bakarrak.

Txikizkariei dagokienez, Irun da hiruhileko osoan afiliazioen igoera eman den udalerri bakarra hiruhile arteko %2,84ko hazkundea izan duelarik. Beste udalerriek maiatzeko afiliazioen jaitsieraren eragina pairatzen dute.

## UDALERRIAK.HIRUHILETIK HIRUHILERAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA 2016ko 2. HIRUHILEKOA

| HANDIZKARIAK | GASTEIZ | ALDAK. | DONOSTIA | ALDAK. | BILBAO | ALDAK. | BARAKALDO | ALDAK. | GETXO | ALDAK. | IRUN | ALDAK. | LAUDIO | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16/1HH | 4.110 | | 3.620 | | 5.134 | | 667 | | 995 | | 1.478 | | 105 | |
| 16/2HH | 4.162 | %1,27 | 3.587 | -%0,92 | 5.023 | -%2,16 | 708 | %6,20 | 992 | -%0,34 | 1.504 | %1,74 | 104 | -%0,95 |
| TXIKIZKARIAK | | | | | | | | | | | | | | |
| 16/1HH | 8.484 | | 8.741 | | 14.025 | | 4.787 | | 2.001 | | 2.430 | | 627 | |
| 16/2HH | 8.611 | %1,50 | 8.945 | %2,34 | 13.987 | -%0,27 | 4.806 | %0,40 | 2.018 | %0,85 | 2.499 | %2,84 | 648 | %3,30 |
| IBILG ETA ORD. PIEZAK | | | | | | | | | | | | | | |
| 16/1HH | 1.591 | | 884 | | 1.374 | | 427 | | 141 | | 588 | | 84 | |
| 16/2HH | 1.595 | %0,27 | 893 | %1,06 | 1.380 | %0,44 | 440 | %3,13 | 141 | %0,00 | 593 | %0,96 | 87 | %2,77 |
| GUZTIRA | | | | | | | | | | | | | | |
| 16/1HH | 14.185 | | 13.245 | | 20.532 | | 5.881 | | 3.137 | | 4.496 | | 816 | |
| 16/2HH | 14.369 | %1,29 | 13.425 | %1,36 | 20.390 | -%0,69 | 5.954 | %1,25 | 3.151 | %0,45 | 4.596 | %2,23 | 838 | %2,69 |

6.taula. Iturria: GSI. Lantzea: Ikusmer.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Ibilgailu eta ordezko piezen sektorean, hiruhileko osoan afiliazioen hazkundea Barakaldo eta Laudion baino ez da ematen. Beste alde batetik, aipatu beharrekoa da, azpisektore hau udalerri guztietan hiruhile arteko datu positiboak aurkezten dituen azpisektore bakarra dela.

Termino orokorretan, merkataritza sektorerako, aurreko hiruhileko datuekin erkatuz udalerri guztietan ematen da afiliazioen igoera, Bilbon ezik, Bilbon %0,69ko jaitsiera ematen baita.

7. taulan sektoreen urtetik urterako bilakaeraren alderaketa biltzen da, 2015-2016 eperako, igarotako 2. hiruhilekoari dagokionez.



IRUN

%2,23
MERKATARITZA SEKTOREAREN HAZKUNDE OSOA

%2,84
TXIKIZKAKO SEKTOREA

%1,74
HANDIZKAKO SEKTOREA

%0,96
IBILG ETA ORD. PIEZEN SEKTOREA

Azpisektore guztietarako Barakaldok eta Irunek baino ez dute urtetik urterako hazkunderik erakusten.

Handizkako sektorean, hiru hiriburuetan, datu kaskarrenak aurkezten dira, Getxon eta Laudion jaitsierak ematen direlarik. Txikizkako sektoreari dagokionez, Bilbon eta Getxon ezik udalerri guztietan datu positiboak ikus daitezke.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektorean Laudion afiliazioen -%17,27ko jaitsiera ematen dela aipatzekoa da. Merkataritza sektore osoari dagokionez, Bilbao, Getxo eta Laudiok baino ez dute urtetik urterako afiliazioen jaitsiera erakusten.

## URTE ARTEKO AFILIAZIOEN ALDERAKETA 2016ko 2. HIRIHILEKOA

| HANDIZKARIAK | GASTEIZ | DONOSTIA | BILBAO | BARAKALDO | GETXO | IRUN | LAUDIO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30an) | 4.314 | 3.682 | 5.111 | 626 | 1.066 | 1.490 | 112 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30an) | 4.178 | 3.605 | 5.013 | 704 | 983 | 1.531 | 106 |
| Aldakuntza | -%3,15 | -%2,09 | -%1,92 | %12,46 | -%7,79 | %2,75 | -%5,36 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | | | | |
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30an) | 8.435 | 8.868 | 14.106 | 4.693 | 2.073 | 2.509 | 648 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30an) | 8.665 | 9.128 | 14.080 | 4.837 | 2.027 | 2.590 | 664 |
| Aldakuntza | %2,73 | %2,93 | -%0,18 | %3,07 | -%2,22 | %3,23 | %2,47 |
| **IBILG ETA ORD.PIEZAK** | | | | | | | |
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30an) | 1.597 | 861 | 1.393 | 427 | 140 | 562 | 110 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30an) | 1.590 | 904 | 1.376 | 451 | 142 | 601 | 91 |
| Aldakuntza | -%0,44 | %4,99 | -%1,22 | %5,62 | %1,43 | %6,94 | -%17,27 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | |
| 2015eko afiliazioak (ekainaren 30an) | 14.346 | 13.411 | 20.610 | 5.746 | 3.279 | 4.561 | 870 |
| 2016ko afiliazioak (ekainaren 30an) | 14.433 | 13.637 | 20.469 | 5.992 | 3.152 | 4.722 | 861 |
| Aldakuntza | %0,61 | %1,69 | -%0,68 | %4,28 | -%3,87 | %3,53 | -%1,03 |

7.taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

# EUSKADIKO KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAREN BILAKAERA

| URTEA/HILABETEA | EUSKADIKO KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA | EKONOMIA OROKORRAREN BALIOSPENA | LANGABEZIAREN BILAKAERAREN BALIOSPENA | ETXE-EKONOMIAREN BALIOSPENA | AURREZKI GAITASUNAREN BALIOSPENA |
|---|---|---|---|---|---|
| 14/I | -23,00 | -24,00 | -20,00 | -16,00 | -33,00 |
| 14/II | -17,00 | -19,00 | -17,00 | -13,00 | -18,00 |
| 14/III | -17,00 | -20,00 | -19,00 | -15,00 | -15,00 |
| 14/IV | -19,00 | -21,00 | -17,00 | -15,00 | -25,00 |
| 15/I | -9,00 | -11,00 | -3,00 | -9,00 | -13,00 |
| 15/II | -4,00 | 0,00 | 8,00 | -5,00 | -19,00 |
| 15/III | -6,00 | -2,00 | 1,00 | -7,00 | -17,00 |
| 15/IV | -4,00 | -1,00 | 6,00 | -6,00 | -15,00 |
| 16/I | -7,00 | -8,00 | 1,00 | -9,00 | -14,00 |
| 16/II | -3,00 | -7,00 | 9,00 | -5,00 | -11,00 |

8.Taula. Iturria: Laboral Kutxa. Lantzea: Ikusmer.

## TITULUAK

*“Bigarren hiruhilekoan hobera egin zuen EAEko familien konfiantzak.”*

*“Europan, ordea, oraingo iritziak 2015ekoak baino negatiboagoak dira.”*

Laboral Kutxak EAEko familien konfiantzaz argitaratzen duen informazioak hobekuntza txikia adierazten du aurreko balioen aldean. Izan ere, aurtengo bigarren hiruhilekoko datua (-3) serie historiko labur horretako daturik altuena da, baina ez da 2015ean lortutako balio batzuk baino askoz ere hobea. Hobekuntza horren zati handi bat langabeziaz duten iritzi baikorragoan oinarritu da, atal horretan jaso baitira aldeko baliorik onenak (9). Aitzitik, oraindik nolabaiteko mesfidantza erakusten dute ekonomia orokorraren egoeraz eta oraingo datua aurreko hiruhilekokoa baino zertxobait hobea den arren, 2015eko azken hiru hiruhilekoetan jaso ziren datuetatik urrun dago oraindik.

Indizearen beste bi osagaietan ere aurrerapen batzuk hauteman dira, neurri handiagoan aurrezteko ahalmenean (-11), baina oraindik balio negatibotan dago. Familiaren ekonomiari dagokionez, iritzi negatiboak eta positiboak berdintzen ari dira.

Europako herrialdeekin alderatuta, EAEko iritziak Euroguneko (-8) zein Europar Batasuneko (-6) batez bestekoarenak baino zertxobait baikorragoak direla hautematen da. Are gehiago, EAEko erantzunek hobera egin duten bitartean, Europako bi eremu horietan 2016ko batez besteko datuak 2015ean eskuratutakoen azpian daude, lehen eta bigarren hiruhilekoen artean inolako aldakuntzarik ez dagoela.

Ezkortasuna bereziki handia da Frantzian eta Portugalen, baina gainontzeko herrialde nagusi bat bera ere ez dago une hauetan balio positibotan, Herbehereak izan ezik (2). Erresuma Batua izan zen 2015ean baikorrenetako bat, baina gaur egun –1ean dago. Espainiak ere atzean utzi ditu emaitza positiboak eta bi hiruhileko kateatu ditu jaitsiera bizkortzen. Okertzeko norabidea Italian ere gauzatu da.

## KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAK




2.grafikoa. Iturria: Laboral Kutxa. Lantzea: Ikusmer.

# KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

## TITULUAK

*"Apirilean, azpiko inflazioa %0,9ra arte moteldu zen."*

*" Aste Santua hileko ezberdinetan ospatu izanak alderaketa baldintzatu du."*

| URTEA/HILABETEA | ADIERAZLEA | HILEKO ALDAKUNTZA | AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ | URTEKO ALDAKUNTZA |
|---|---|---|---|---|
| 16/04 | 103,3 | 0,7 | -1,0 | -0,7 |
| 16/05 | 103,7 | 0,4 | -0,7 | -0,7 |
| 16/06 | 104,3 | 0,5 | -0,1 | -0,5 |

9.taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.
Uniitatea: 2011ko oinarria=100




3. Grafikoa. iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

## URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA 2016ko APIRILA

| KPI TALDE NAGUSIAK | EUSKADI | ESPAINIA | EUROGUNEA |
|---|---|---|---|
| **INIDIZE OROKORRA** | **-0,7** | **-1,1** | **-0,2** |
| Elikagaiak eta alkoholik gabeko | 2,5 | 2,0 | 0,6 |
| Alkoholdun edariak eta tabakoa | 0,2 | 0,5 | 1,6 |
| Jantziak eta oinetakoak | 0,7 | 0,5 | 0,4 |
| Etxebizitza | -6,8 | -7,1 | -1,7 |
| Etxeko hornidura | 0,4 | 0,2 | 0,4 |
| Medikuntza | 1,1 | -0,2 | 0,9 |
| Garraioak | -4,7 | -5,1 | -3,1 |
| Komunikazioak | 3,5 | 3,4 | 0,1 |
| Aisia eta kultura | -2,9 | -2,6 | -0,1 |
| Irakaskuntza | 0,5 | 0,5 | 1,7 |
| Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 1,2 | 1,1 | 1,7 |
| Beste batzuk | 1,6 | 1,6 | 0,8 |

10. taula. Iturria: EIN eta Eurostat.

EAEko KPI indizeak berriro tasa negatiboa jasotzea ez da albistea. Aitzitik, azpiko inflazioak bere goranzko joera etengabea moztea eta hiru hamarreneko moteltzea izatea, %0,9an kokatu arte, hori berrikuntza bat da prezioen analisian. Bilakaera horretan paper erabakigarria jokatu zuen Aste Santua efektuak, 2016an martxoan ospatu delako, iaz apirilean izan zen bitartean. Horrek azaltzen du aisia eta kulturaren, alde batetik, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeen, beste aldetik, jaitsiera.

KPIaren beheranzko joera aldatu daiteke datozen hilekoetan, kontuan hartuta Brent motaren salneurria suspertzen ari dela azken hilekoetan. Izan ere, urte hasieran 30 dolarren azpitik kokatu zen, baina gaur egun 50 dolarretara hurbildu da. Petrolioaren garestitze hori eskariaren eta eskaintzaren aldetiko arrazoiek argitzen dute.

Zehazkiago, petrolio gordina ekoizten duten hainbat herrialdek eskaintza murriztu dute azken hilekoetan. Beraien artean, aipatu behar dira Nigeria, Libia, Kanada, kasu horretan suteen ondorioz, eta AEB, prezioen jaitsierarengatik petrolio ez-konbentzionalaren erauzketan eginiko inbertsioak murriztu dituelako. Aitzitik, petrolioaren eskaria Asiako herrialde batuetan, hala nola Indian, eta AEBetan bertan hazi da, lehengaiaren prezio merkeak bultzatuta. Halaber, aurreikuspenek iradokitzen dute eskaria aurten eta datorren urtean areagotuko dela. Beraz, oso litekeena da petrolioaren salneurriak gorako joerari eustea.